

dela, alegia. Hizkuntza batzeko bide zailean ezin zaie haatik gauza tipi guztiet erreparatu. Hizkuntza funtzional bat nahi badugu txokokeriak utzi behar ditugu, zenbat eta nolakoak garen ahanzi gabe. Eta hau ulertzen ez bada alferrikakoak izanen dira esfortzu guztiak. Euskara batuak eskatzen duen kontzientziak jabetzen ez bagara jai dugu; ez gara guretik aterako, eta beste euskaldunengana iristeko aukera guztiak galduko ditugu.

Askotan galdetzen digute irakasleoi noiz “sartu” behar den euskara batua, non eta nola erabili behar den, edo zein den bere espazioa... Ez dut uste galdera berak eginen lizkiguketenik dugu eta euskara batua “artifizialarekin”. Badira beste dute, hiri batean seguru aski; guk betikoa egiten dugu, hemengo, ez digute beste hori sartuko”.

Euskalkia ez da sartzan, etorri egiten da. Euskara batuak eskolan egon egin behar du. Ez bat ez bestea ez dira inoiz aterako eskolatik. Zozokeria bat izateaz gain, gaur egun ezinezkoa da bati edo besteari itzuri egitea. Aurreko galdera horiek egiten direnean batetik bestera ailegatzeko eman beharreko pausoz galdegin nahi dugula iruditzen zait. Zubi bat behar da, eta hor heldu dira zalantzak.

Zubi horren eraikitzaile nagusia irakaslea da. Honek beste ezertan hasi baino lehen jarraitu beharreko bideaz galdegin beharko dio bere buruari. Tamalez, gutxienezko baldintza hau ez da askotan betetzen. Nafarroan bederen ez daukat nik gai honen inguru eztabaidatu eta erabakirik hartu duen ikastetxe bakar baten berri.

Jarraitu behar den bidea markatzeko irakasleak euskalkian eta estandarrean egon behar du jantzia, eta hor hasten da arazorik larrienetako bat. Edozein euskalkitik edo euskalki zehatz batetik kanpo dagoen irakasleak ezin du esan, “ni euskara batuaz mintzo naiz, zuek ere iritsiko zarete noizpait”. Kasu horretan irakaslea da pausoak eman behar dituen eta ez alderantziz.

Irakaslea da gidaria eta iragazkiak jarriko dituen, berak neurtu beharko ditu graduak eta aurrez ikusiko zenbait oztopo eta zailtasun. Irakaslearen ardura da dagoena hartu eta eredu egoki bat proposatzea, komunikabideek zabaltzen duten mordoiloa iraingarriari beste zerbait kontrajarri behar diona.

Abiapuntua ere kontutan hartu beharko da. Proposatu zaizkigun gomendioetara hurreratzeko bidea luzeagoa da batzuentzat besteentzat baino. Luzeegia behin baino gehiagotan.

Guri dagokigu ekitea eta topatutako zailtasun eta hartu beharreko erabakien berri ematea.

Hala ere ezin duarik izan hurrengo honetan: hasieratik euskara estandarraz mintzatuko zaie haurrei. Ez da itxadon behar, neurtu eta mailakatu baizik. Irakasleak ikusi beharko du noiz eta nola gehitu, baina eskolan bertan ez da ia inoiz gutxitzea komeni.

Ezin beste hainbeste eskatu ikasleei. Horien ahotan beti izanen da euskalkia edo horren kutsua. Egoera partikularretan eskatu ahal diegu era estandarrean mintza daitezen, eta batzutan ahalegin berezia eskatu beharko diegu, momentua eta testuinguru zehaztuz, irakatsi dieguna egiaztatzearen.

Aldaketak luze gabe nabaritu dira. Alfabetatzeak errejistro kultura iristeko aukera ematen duenez, zenbait momentutan euskalkia osatzeko eta bestetan beharrik ez delarik ere, euskalkitik aldentzeko tentaldiak sortzen ditu. Halabaina benetako arriskua ez dago hor, aspalditik mantendu den beste mito honetan baizik: letratu gabeko euskaldunen euska-

ra da jatorrena. Mito honi zinismoa eta pozoina dario, honen defendatzaileak letratzeko aukerak aprobetxatu baitituzte eta finean erdararen aldera jokatzen dute. Horien bide estua jarraitu gero amankomunago izanen dugu azkenean eradara. Gaur egun diskurtso atzerako horren defendatzaile asko eskari zilegiak egiten dituztenen arrimuan datoz bere mezua zabaltzera.

Beste gezur haundi bat ere hedatu dute: “hautatzera bortxatzen gaituzten”, diote. Hemen ez da hauturik egin behar, ez da ezer hil behar, bizirik dagoen guztiak bere lekua behar du. Batasun prozesu orekatu batek ez du garrantzizko galerarik ekartzen.

Arazo eta irtenbideek eskatzen duten kontzientzia erroto-ko balitz, beti present bagenu euskara batua ez dela bukatu-rik den zerbait, gu garela batasun saio horren protagonista, eta gu gabe edo gurekin bakarrik euskarari zerbait falta zaiola, mintzakidea ulertzeko desioa piztea lortuko genuke. Eredu berrira inguratu nahi baditugu ikasleei ezin zaie irakasle askori entzun diodana esan: “zuek ez duzue ongi esaten, gisa hone- tara da.”.

Prozesuaren amaieran (inoiz amaierarik baldin bada), ikasleak hizkuntzaren eta hiztunen eta berdintasun nahiz desberdintasunen kontzientzia izan beharko luke. Horiekin batera gure artean dauden hesi tipi eta haundiak desegiteko delibero irmea. Eztabaida dezagun behar den guztia, azkenean komentaturik eta gogotik esan dezagun “amen”. Horrela jokatzen ez bada lehenik “amen”, eta beherala zu hor ta ni hemen.

EUSKARA BATUA ETA EUSKALKIAK

IÑAKI GAMINDE

Mahai-inguru honetan, bertoratu gaituen gaiaz, Bizkaiko herri euskaldunen ikuspuntutik egin gura ditut hausnarketa batzuk. Zeregin hauetan trebatua ez naizelako beldur banaiz ere, gaiari lotuko natzaio lehenik oharterazteko nire hausnarketok Bizkaitik eginda egon izanak ez duela esan gura Euskal Herria, gure nazioa, ahaztu egiten dudunik. Haatik, bizkaitarrok euskaldunak gara baita bizkaitarrak garelako ere; eta gure desberdintasuna aberasgarria delakoa daukadalako egiten ditut ondokook.

Ezin uka ditzakegu euskara batua idatziaren aportazioak euskararen normalkuntzan, eta Bizkaiko gazteek derrigorrezko hezkuntza amaitutakoan eredu standar sakona izan behar dutela uste dugu. Hala eta guztiz, honek ez du bazterten Bizkaiko gazteek lehen hezkuntza berberori amaitutakoan izan behar dituzten bizkaierari buruzko ezagupenak edukitzea. Bizkaiera eta Batua elkarren osagarri direla onartuta, euskara aberatsa eta maila guztietarako indartsua izatea dugu helburua, bakoitzari dagokion esparrua aitortuz.

Eskolaren inguruan diharduten ikerlarien artean badirudi eze, jakindakotzat ematen dela umeen etxetik hizkuntzaren balioa, eskolara orduko, eta altxor hori kontutan hartu ezeze, erabilgarria ere badela, izan, eskolako praktikan; Itziar Idiazabalen ondoko berbotan argi azaltzen den legez:

“Helburu nagusietatik hasiaz, euskara amahizkuntza bezala lantzea litzateke lehenengo xedea. Hontan, beste edozein amahizkuntza ongi lantzen denean bezala, ahalik eta erabilera ezberdin gehienetarako behar diren hizkuntz moldeak ikastea da beharrezkoena. Hau esaterakoan gauza asko esaten da: hizkuntza

horren barietateak, genero, erregistro edo giza-egoera ezberdinek eskatzen dituzten aldakiak eta geografi-aldaki edo euskalkiak kontutan hartu behar direla eta guzti horiekiko ezagutza, ulermen mailakoa batzutan, erabilerazkoa bestetan, jaso behar dutela ikasleek eskolan¹.

Ikerle berberonek apur bat beherago honako hau dakar:

“1. Leku bateko hezkuntzan bertako hizkuntza erakustea oinarriko baldintza delako, zentzu apur bat duen irakaskuntzan, jakina”. (21. or.)

OCD-k berak honako hau dinosku?

“Honela, objektu edo material desberdinak eskolatik etxera (marrazkiak, buztinez egindako eraikuntzak...) eta etxetik eskolara (ipuinak, materiale zaharkituak, fruituak...) eraman daitezke, senitartekoekiko komunikazioa bultzatuko dutelarik. Etxea-eskola komunikazio hau haur bakoitzarekiko eta beren bila eskolara datozen arduradunekiko elkarriketen bidez aberas daitezke”.

Ideia ona izanda ere, herri euskaldun baten, edo gurago bada, herrien egoera soziolinguistikoak oso desberdinak direnez gero, ume euskaldunen artean, nekez burutuko da komunikazio hori eskolako hizkuntza bertakoagaz inongo zerikusirik ez badauka, sarri askotan jazotzen den legez. Elkarren osagarritasun hau are garrantzitsuago bihurtzen da OCD-k berak esaten duen beste honako hau benetan egin gura bada:

“Halere, elkarriketaz gain, badira beste ahozko hizketa mota batzuk haurrentzat oso ohizkoak direnak, adibidez ipuinen kontaketa, poemak, abestiak eta ahozko herri-tradiziozko esaerak, helduek ahoz egindako transmisioa oso atsegina egiten zaielarik”.

Eskuarki, badakigu jakin herri euskara sano aberatsa dena eremu honetan. Halere, nekez lortuko da identifikazio hori Zeberion, kasu baterako, Altzürüküko ipuinak bertan legez bertan kontatzen badira, edo alderantziz.

Ideia eder hauei heldu gura bazaie, usteak ustel gera ze dakizkigun, badira arazotxo batzuk konpondu beharrekoak, jakina; hala nola: irakasleen prestakuntza linguistikoa, materiallea egokitzapena, etab.

Eta hori baino lehen, hegalka dabilkigun mamu bat eza-batzeko behar ideologikoa ere egin behar dela ematen du. Hau da, auzokoen intxaurrak garaun bikoitza eukitzen segitzen duen artean, ezin norberaren bakoitzari daukan balioa eman dakioko.

Irakasleagoaren prestakuntzarena, ez dirudi, horretarako borondate politikoa egonda, hain gaitza denik. Beronen aurrean bide bi dagoz, bederen:

Batetik, segitu ahal dugu EGA-dun edo PL-2dun irakasle euskaldun berri berriak herri euskaldunetara bialtzen, gero altxor publikoaren kutxatik liberatu eta bizkaiera ikastaroak egiten jarri. Eta bestetik, euskaldun zaharrak diren irakasleak herri euskaldunetan koka genitzake egokitzapen txikar baten ondorenean.

Materialarena zailagoa dela ematen du, argitaletxeen interesak jagon egin behar dira, eta denok dakigu merkatua non dagoen salmenta eta mozkin handiagoak ateratzeko. Hona helduta mozkin eta onura berben alde semantikoaz ohartzea ez litzateke txarto egongo.

Dinogun bide batez, matematika alorrean korritzen duen liburu baten, neurriak ikasteko eta alderaketak egin ahal izateko, Bizkaiko ume euskaldunei ‘zehe’ eta ‘behazetan’ egiteko ereduak jartzen zaizkielako. Bizkaiko guraso euskaldun gehienoi, kirola gutxitan egiten dugu eta, gaitza egiten zaigula orinan behatzen bidez neurriak hartzea; eta bestalde, arrak erabiltzen ditugu oraindik gauza askotarako, arra bat ur, arra-kordela, jo eta arra olegetetan, etab.

Eskolarako testu eta liburuen kalitate grafikoa sano hobatu bada ere, ezin gauza bera esan dezakegu euskararen kalitateari dagokionez, izan ere, sarri akats nabarmenak ere agertzen dira.

OCD-ren borondate ona dela eta, batzutan ematen du ze agindua bat eta emona bi direla, izan ere, Lehen Hezkuntzari dagokion horretan honako hau irakur dezakegu:

‘(Las correspondencias grafía-fonema en euskara y en castellano son lo suficientemente próximas, salvo algunas excepciones, como para que los alumnos puedan trasvasar el conocimiento que tienen de dichas correspondencias, de una lengua a otra. Esto hará que la sistematización del aprendizaje de la lecto-escritura se pueda dar, fundamentalmente, en una sola de las lenguas”

Euskararen sistema fonologikoa irakurtzean ere, kontutan hartzen ez bada, argi dago arrisku bizitan jartzen dela, izan ere, goiko eritzia bezalakoak direla medio, azkenean euskaraz gaztelaniaren sistema fonologikoa ezartzen da. Gure kasuan, ezbai izpi txikarrenik eduki ezta, erdararen sistema gailenduko dena esatera ausart gaitzake.

Morfosintaxi alorrean, hartu diren erabakiak asti izan ezta ere aurki, euskalki desberdinetatik eredu standarra aberats dezaketen esan molde eta ereduak hartzea ez litzateke batere kaltegarria izango; zer esanik ere ez dago, esakerei bagagozkie, mintzabideari ñabardura desberdinak eman ahal izateko behar diren horiek eskola inguruko euskalkitik hartu ezik nekez erabili ahal izango dira gero.

Lexikoari dagokionez, argi dago bereiztu behar direna atal bi; batetik, lexiko tekniko edo zientifikoa zurruna eta zehatza bezain finkoa izatea behar beharrezkoa da, arrazoi desberdinen artean argitasunagatik beragatik; aitzitik, beste maila batzutan, sormena lantzean kasurako, ez dago, nire ustez, zertan deus ere bazterturik; zehaztasun zientifikoa behar ez denean, berbetan ere euskararenak direnak, denak, euskara batuzat jo behar direla uste dut. Norberak ikusi eta egin egingo du estilo propioa bere gustoko lexikoa erabilia eta landuta.

Bizkaiera zonalde erdaldunetan noiz eta zelan sartu behar den eztabaidatu gurako nuke noizbait; beronek esan gurako luke euskara batua eta euskalkien arteko lehia hori benetan gainditukotzat jo genezakeela.

Dena dela, eredu standarra goiz sartzeak ez dakarkioke ikasleari inongo arazorik, baldin eta berarena ez bada arbuaitzen; eta, esate baterako, erregistro informaletan, eskolan sarritan erabiliko direnak ere, bere eredu erabiltzeko aukera ematen bazaio.

Nire eritziz, gaur egun, euskara batua eta euskalkiak delako zeingehiagoka baino askozaz larriagoa dugu eredu fonologikorik ez eukitzea; linguistek argi utzi dute erdarenak eta euskararena sistema desberdinak direna. Batua eta euskalkia biak elkarren osagarri, bakoitza dagokion esparruan. Baina, nondik lortuko ditugu ahozko ereduak ahozko euskara biziaren ikerketetatik izan ezik?; eta kontutan eduki dezagun, bestalde, ahozkotasuna ez dela fonologian mugatzen, asko-

1. IDIAZABAL, I. (1992): “Euskararen normalkuntza eta kurrikularen berrikuntza”. in IDIAZABAL, I. (ed) (1992): *Testuaren pedagogia*. Labayru Ikastegia, Bilbo. 20. or.

2. EUSKO JAURLARITZA. (1992): *Oinarriko Curriculum Diseinua: Haur hezkuntza*. Gasteiz, 136. or.

zaz zabalagoa da, eta funtsezkoa euskara mintzatzeko hizkuntza ere izango bada.

Ahoskeraren arazo honegaz kezkatuak, Euskaltzaindiak, beronen 75. urteurrenaren zuzuan, Ahoskera Batzordea eratu berri du; batzorde honen lanari eskerrak, hala nola beste laguntzaile batzuren aportazioez ere, luze barik, eredu jasorako arau zenbait eskaintzeko itxaropena badaukagu, euki; eta gura ere izango genuke ahalik arinen eskolaratzea hortik sortuko diren ereduak eta proposamenak. Hala eta guztiz, eredurik onena bageneuka ere, alperrik izango litzateke irakasleak arazo honen garrantziagaz jabetuko ez balira.

EUSKALKIAK ETA BATUA ERAKASKUNTZAN IPARRALDEAN BEHINBETIKO TESTUA

XARLES VIDEGAIN

Ondoko lerroetan Gazteizen Eusko-ikaskuntzak antolatu biltzarrean aukezten dudan txostenaren asmo nagusiak aipatu nahi nituzke, ahalaz betiko ideiak gehiegi errepikatu gabe.

Batua bat bera izanik bainan euskalkiak bat baino habero, euskalki guztietaz ez baizik eta Iparraldeko eremuan mintzatzaren lapurteraz, baxenapartarrak eta xiberotarrak, hotz frantses estaduko mugetan dauden dialektoetaz.

Erakaskuntzan euskalkiak eta batua nola hartuak diren, zernolako eginbidea ematen zaien, eta zertarako baliatzen diren ikus aintzin, euskararen egoeraren ezaugarri zeobait nahi ta ez aipatu behar dira.

1. Oso egoera latza ezagutzen du euskara, kostaldean berezeiki, hain zuzen pizu demografiko handia duen Lapurdin. Gehiengo handi batek euskara ez daki, ez du ikasten ez ikasiko. Erakaskuntzan euskararentzat kausitu den lekua oso eskasa. Irakasle gehienak erdaldun huts dira, ez dute euskera ikasten. Ondorioz euskararen inguruan haz daitekeen eztabaideetaz ez da batere ohartzen jenderik parte handiena. Hemen beraz mahai inguru honetan aipatu beharrekoak ez dira interesatzen. Euskararen inguruan bizirik den eztabaidetan jende multzo ttipi batek baizik ez du bere burua sarturik ikusten. Hastarretik egiten dudan ohar ezezkor erlatibizatu nahi du ondotik erran nezakeena.

2. Erakaskuntzan euskararen bidea hautatu duten jendee-tan lehentasuna eman zaio euskara versus erdara borrokari. Erdaraz ez bakarrik bainan euskaraz ere ikastea beraz hautu gobar baten ondorioa izan da. Hautu horretan zoin euskaramota erabil hori bigarren mail batean gelditu da.

3. Nahiz jende-multzo hori kopuruz urria den; ez du erran nahi jende hоек kasu berean, sartzen direnik urrundik ere. Erran gabe doa ez daitekeela konpara errotik euskaldun diren familien haurra erdaldun familiakoarekin. Desberdintasan horrek ba du bere hautatzea, edozoin ekonomi-sistematan oso kario baita. Ondorioz, nahiz ez den kausa bakarra, ikerketa zientifikorik ez da eginik izan euskararen kalitatea eta nolakotasuna barnatu dituenik. Ezagutzen diren lanak eta inkestak kantitatiboak izan dira: zonbat ikasetxe, zonbat gela zonbat ikasle etabar. Gelan ikasle bakoitzak euskararen ikasteko ezagutzen duen barne-ibilbidea ez da nehundik ere zedarritua izan ez bada intuitiboki. Instituzioen aldetik ez da orai arte laguntzarik agertu. Berrikitan Ikastolek frantses ministeritzarekin sinatu hitzarmenaren ondotik ikasleen jakitatea neurtu nahi zen, ez nola ikasten zuten; gehienik ere elebitasunak dakarkeen abantailaz mintzo da baina ez gure egoera soziolinguistikoan gertatzen diren kasuistika osoak.

Egoera hits hau den baino beltzago ez dut uste agertzen dudana, bainan euskararen mikrokosmoa egoera hortan sartua dela ez da ahanzi behar.

Itsura ez bada ere, euskararen erakasteko borondotate onez eta intuizioz jokatu da euskaldun jendea; ez baitzen aintzinetik neholako erreferentziarik bidearen argitzeko. Nolako euskara baliatuko zen konprenitzekotan aipatu beharrekoak dira ondoko puntuak:

4. Sortzetit, batuak Iparraldeko mintzairaren usaina eta kolorea ez ditu baztertu. Jakina teknikoki lapurterak batuari gauza frango eman diola, aditzean partikulazki (bizkaitar famatu zonbait zirelarik lapurtarziale handienak, Iparraldekorik ez delarik izan bizkaieraren alde jokatzeke). Sinbolikoki jendearentzat pizu zuketan puntu zonbaitetan, hala nola -h- ren arazoan, etendurarik ez da sendi izan. Oro har batuak Iparraldea kontuan hartu zuela onartu dute Iparraldeko euskaldunek (beriz diodan erdaldunen ixilean egin direla lan horiek guziak, segur aski gure onerako).

5. Batua finkatu duen erakundea Euskaltzaindia izan da bi aldetako euskaltzainez osatua dena. Berez Iparraldeko gizartean eragin gutiko taldea izan da, onespren ofizialik gabekoa. Komunitate autonomoan hartu duen garrantzia ez du ukan Iparraldean bereziki hartzen zituena erabakien obra-arazteko. Komunitate autonomoan euskara batu moduko bat garatu duten indarrak ez ditugu ezagutu Iparraldean. Ez dugu ezagutu konparazioen UZEI edo Elhuyar bezalako talderik, araudi gehiago eta bertanago eskatzen baitute berek de facto araudiak garatzen dituztelarik. Hazi den hizkuntz funtzional hori ez dugu ezagutu euskaraz bizi den instituzio edo taldetik ez baita izan bihirik.

6. Nunbait prentsa badaiteke ere batua eta gipuzkoera gauza bera direla, Iparraldean ez da arras horrela sendi orai arte. Arrotz aire balinbadu batzutan batuak, ez zaio egozten gipuzkoakoa izaitea baizik eta oro har mugaz bestaldekoa. Batua sort aintzin, kostaldean bederen gipuzkoera zen hurbilena Gipuzkoa bera hurbilena zen bezala. Bizkai aldera joz euskara gero eta bestelakoago zela susmoa bazuten Lapurtarrek. Bestela erranez, batua = gipuzkoera ekuazioak ez du oihartzun handirik ukan iparraldean, dagoen muga politikoak hanitzez gehiago markatzen gaituelakotz gipuzkoera eta bizkaieraren artekoa baino. Ber komunitate politikoa ez gara bizi azkenean.

7. Batua bultzatu duten idazleak, kasetariak, etabar, Iparraldean zuhur edo uzkur ibili dira. Egunbatetik bestera ez astekarian nola jokatzen zuen Lafitte batek...

8. Ikusiz lapurtera dela batutik hurbilena den dialektoa, Hegoaldean gipuzkoerak omen duen irudi bera har lezakeela lapurterak prentsa daiteke. Gerta zitekeen, ez da gertatu, beti arrazoin soziolinguistikoak direla medio. Lapurterak ez du prestijiorik lortu batua garatu denaz geroztik, lapurtera itzaltzera doalakotz eta pizurik ez duelakotz euskaldungoan. Lapurteraren mitorik ez da egin behar. Historian zehar egia da iparraldeko idazle gehienek eta Elizgizonek —ez bada hor pleonasmorik— Lapurdiko euskera berea egiten zutela. Beti aipu da DL S SPko hirukantoineko magikoa. Mende honetan ez da holakorik ikusten, Larzabal zena eta Irartzeder kendurik beste guziak ez bait dira lapurteraz ari. Hasi Etxepare medikuarekin edo Hiriart-Urrutyekin, oraiko E, Larre, D. Landart, P. Xarriton edo E. Etxamendi ez dira lapurterez ari.

Gaurko gazteek, eskolan eta eskolatik kanpo, lapurtera entzuteko paradarik kaik ez dute. Baionan baxenapartarra da nausi (beti ari naiz erderarik ez balitz bezala), Dlohitzunen guti entzuten da, Hendaian koine bat hedatu da,